# Dibulgazio ekintzeen egitaraua 2020

# IAN-ANI



- *Rosa pendulina* L. - Ilustrazioa Beatriz Alonso

Instituto Alavés de la Naturaleza

ian ani

Arabako Natur Institutua

# Egitaraua 2020

### ENERO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** | **19** |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

### OTSAILA FEBRERO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | **14** | **15** | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | **21** | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | |

### MARTXOA MARZO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | 1 |
| 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 |
| 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | **14** | 15 |
| **16** | **17** | **18** | **19** | **20** | **21** | **22** |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | 31 | | | | | |

### APIRILA ABRIL

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | **4** | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | **25** | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | | | |

### MAIATZA MAYO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | **9** | **10** |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | **16** | **17** |
| 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | **23** | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 |

### EKAINA JUNIO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | **6** | **7** |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | **20** | **21** |
| 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

### UZTAILA JULIO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | **11** | **12** |
| 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | **18** | 19 |
| 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 |
| 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | | |

### ABUZTUA AGOSTO

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 1 | 2 |
| 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18 | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

### IRAILA SEPTIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | **4** | **5** | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | **12** | **13** |
| 14 | 15 | 16 | 17 | **18** | **19** | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | **27** |
| 28 | 29 | 30 | | | | |

### URRIA OCTUBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | **3** | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | **9** | **10** | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | **16** | **17** | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | **24** | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

### AZAROA NOVIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | **1** |
| **2** | **3** | **4** | **5** | **6** | **7** | **8** |
| **9** | **10** | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 |
| 16 | 17 | 18 | 19 | **20** | **21** | 22 |
| 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 |
| 30 | | | | | | |

### ABENDUA DICIEMBRE

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |

| | | | Orria |
|---|---|---|---|
| URTARRILA | 18-19 | Santoñara bisitaldi ornitologikoa (Cantabria) | 3 |
| OTSAILA | ⊗ 14 | Xavier de Arizaga belartegi digitalaren mintegian izen ematea (HDXA) | 3 |
| | 15 | Urdaibai (Bizkaia) | 4 |
| | 21 | Likenoteka digitalaren mintegia | 4 |
| MARTXOA | 14 | Izki: Natura eta Kultura I (Araba) | 5 |
| | ⊗ 16-22 | Belartegi digitalaren ez ohizko irteera: Portugaleko Narsissus-ak | 5 |
| APIRILA | 4 | Hiriko Zadorratik ibilaldi ornitologikoa (Araba) | 6 |
| | 25 | Liken tailerra | 6 |
| MAIATZA | ⊗ 9-10 | HDXA-ren 1. Irteera: Fragako “El Vedado” (Zaragoza-Lérida) | 7 |
| | 16 | Natura familian | 7 |
| | ⊗ 17 | HDXA-ren 2. Irteera: Laserna (Araba) eta Vianako (Nafarroa) kaskailu-tokiak | 7 |
| | 17 | Merindadesetara natur txangoa (Burgos) | 8 |
| | 23 | Ornitologiari buruzko maratoitxikia | 8 |
| EKAINA | ⊗ 6-7 | HDXA-ren 3. Irteera: Santo Domingoko mendizerra (Zaragoza) | 9 |
| | 20-21 | “San Juan ukendua” egiteko tailerra | 9 |
| UZTAILA | ⊗ 11-12 | HDXA-ren 4. Irteera: Beceiteko mendateak (Teruel-Castellón) | 10 |
| | 18 | Santa Catalinara txango likenologikoa | 10 |
| IRAILA | 4-5 | Tailerra + Irteera. Udazkenezko onddoak I | 11 |
| | 12 | Izki: Natura eta Kultura II (Araba) | 11 |
| | ⊗ 13 | HDXA-ren 5. Irteera: Kuartangoko azkarrak (Araba) | 12 |
| | 18-19 | Tailerra + Irteera. Udazkenezko onddoak II | 12 |
| | ⊗ 27 | HDXA-ren 6. Irteera:. Quercus-ak Quejon (Arcena mendilerroa, Araba) | 13 |
| URRIA | 3 | Hegaztien eguna: “Iegar-hobien mundua” | 13 |
| | 9-10 | Tailerra + Irteera. Udazkenezko onddoak III | 14 |
| | 16-17 | Tailerra + Irteera. Udazkenezko onddoak IV | 14 |
| | 24 | Aretxabaletan habi-kutxak garbitu eta behatu | 15 |
| AZAROA | ⊗ 1-10 | Belartegi Digitalaren ez ohiko irteera: Udazkenezko Narcissusak Marruekosen | 15 |
| | 6-7 | Tailerra + Irteera. Udazkenezko onddoak V | 16 |
| | 20-21 | Tailerra + Irteera. Udazkenezko onddoak VI | 16 |

⊗ Xavier de Arizaga belartegi digitalaren mintegia (HDXA)

# Urtarrila

## Santoñako eta Nojako paduretara bisitaldia

**Urtarrilaren 18ean eta 19an Larunbata eta igandea**

"Santoñara bisitaldi ornitologikoa"

**ANTOLATZAILEA:** Rocío Quintana
**PLAZAK:** 12
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



Santoñako estuario-padura sistema Kantauri kostaldeko hezegunerik nagusiena eta aldi berean Espainako biodibersitate haundienetakoa duen tokia da.
Toki hau milaka hegaztik neguko hilabete gorriak pasatzeko aukeratzen dute.
18an, egun osoz, Alejandro Garciaren laguntza izango dugu. Bera "Aves Cantábricas" empresaren gida profesionala da eta berarekin Santoñan dauden ur eta lur-hegazti garrantsitsuenak puntu ezberdinetatik ikusteko aukera izango ditugu.
Santoñatik 6 km-ra dagoen Escalanten afaldu eta lo egingo dugu.
19an, igandean, interes ornitologiko haundiko beste toki batzuk ikusteko aukera izango dugu, hau da, Victoriako padurak eta Colindreseko kaia.

# Otsaila

## HDXA mintegian izen ematea

**Otsailaren 14an Ostirala**

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren mintegian izen ematea (HDXA)"

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** 15
**MATRIKULA:** bazkideak 10 euro/ez bazkideak: 20 euro



Flora espezieak argazki bidez jasotzeko eta belartegi digitalaren kolekzioa handitzeko lantalde bat sortzea.
Helburu hori lortzeko, partaideek urtean zehar garatuko diren 6 irteeretan parte hartzeko aukera izango dute.
Irteerek, urte hasieran zehazten den programa jarraituko dute, egun beteko edo asteburuko irteerak izango dira, eta joan-etorriak partaideen kotxeetan egingo dira.
Irteeretan parte hartzeko beharrezkoa da izena ematea eta lantaldeko kidea izatea.
Ikusi belartegiaren garapena ANIren web-gunean.

# Otsaila

## Urdaibai

**Otsailaren 15ean Larunbata**

"Urdaibaiko inguruetako hegaztien behaketa"

Urdaibaiko estuarioa, Oka eta Golako ibaien bokalean, habitat ezberdinekin inguratuta dago: zelaiak, landak eta kantauriar artadiak. Horrexegatik aberastasun ornitologikoa eta bioaniztasun tasak oso altuak dira. Euskadiko hezegunerik haundiena da eta hegazti migratzaileentzat derrigorrezko geldialdi izan ohi da. Horrexegatik Biosfera-erretserba, ZEPA eta Ramsar hezegunea deklaratuta dago.
Erretserbaren bihotzean behatoki batzuk eta Bird Center-ra bisitatuko ditugu. Azken honek hegaztiei buruzko ikerketa eta dibulgazioa egiten du.
Ekintza honetan kostaldera ere hurbilduko gara itsas-hegaztiak ikustera.

**ANTOLATZAILEA:** Maite Martínez Madrid
**PLAZAK:** 12
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



## Likenoteka digitalaren mintegia

**Otsailaren 21ean Ostirala**

"Likenoteka digitalaren mintegian izen ematea"

Xavier de Arizaga Belartegiko likenoteka lan taldea osatzeko bilera. Helburua likenak aztertu, argazkiak atera, sailkatu eta deskribatzea izango da.
Mintegi honetan ANIn dauden optiko tresnak, laborategiko material egokiak eta bibliografia erabiliko dira. Likenak biltzeko gure inguruetako toki batzuetara irteerak egingo dira. Hiriko likenei arreta berezia eskainiko zaie.
Bilera honetan 2020ko laborategiko saioak eta irteerak planifikatuko dira.

**ANTOLATZAILEA:** Félix Garaikoetxea
**PLAZAK:** 10
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ez bazkideak: 6 euro



# Martxoa

## Izki: Natura eta Kultura I

Martxoaren **14an** Larunbata

"Herriko natura eta kulturaren arteko erlazioa interpretatuko dugu"

Irteera honetan Izkiko habitat ezberdinak, hegaztiak zein bertako beste animaliak, herriko natura eta kulturaren arteko erlazioa interpretatuko dugu.
Ur-hegaztiak dituen urmaelaren bat bisitatuko dugu eta *Quercus pyrenaica*-ren basoan sartuko gara eta ohiko gestioa Martinarrin edo Portaletan ikusteko aukera izango dugu. Izkin eta Trebiñoko hainbat herritan Historian zehar egin den kudeaketaz eta aprobetxamenduaz mintzatuko gara.

**ANTOLATZAILEA:** Andoni Llosa
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



## Belartegi digitalaren ez ohizko irteera: Portugaleko Narcissus-ak

Martxoaren **16tik 22ra**

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren ez ohizko irteera: Portugaleko Narcissus-ak "

Portugaleko iparralderuntz abiatuko gara, Zamoratik sartuz, **Narcissus**-eko Ganymedes sekzioaren ikasketa bukatzeko.
Bizitokian bertan behatzeaz gain aztertzeko laginak ere jasoko ditugu. Porto inguruetatik eta Estrela mendizerratik pasatuko gara eta Extremaduratik aterako gara, bide batez, Gata mendizerran orain dela gutxi deskribatu diren hibrido batzuk ikusteko asmoz, ***N. x gatensis*** adibidez.

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** 4, lehentasuna HDXA-ren mintegian apuntarik daudenek.
**MATRIKULA:** Gastuak denon artean.



*Argazkia: Narcissus triandrus*

## Zadorra ibaiatik ibilaldi ornitologikoa

**Apirilaren 4an Larunbata**

**"Hiriko Zadorratik ibilaldi ornitologikoa"**

Iparraldeko Eraztun Berdetik eta Zadorrako bazterretatik ibilaldi bat egingo dugu. Udaberrian bizitzaz beteta dauden ibaiaren eta ertz-basoetako fauna aztertzea izango da gure helburua.
Bide batez hiriak izan duen zabalkundea zein uholdeen kontra egin diren obrak eta beraiek biek ekosisteman duten eragina aztertuko dugu.
Zorte pittin batekin hegazti bereziak edo ez arruntak ikusiko ditugu.
Zadorran ikus daitezkeen historiaren hainbat aztarna ere azpimarratuko ditugu. Adibidez: ur-zikloarekin, ur-horniketarekin edo saneamenduarekin zer ikusirik izan dutenak.
Abetxukotik atera, oinezkoentzako zubitik pasa, eta Eraztun Berdeko zidorretatik Astegieta eta Krispijanaraino iritsiko gara. Geldialdia kontutan hartuz 5 orduko iraupena izango du ibilaldi honek.

**ANTOLATZAILEAK:** Jabi Manzano eta Orixol (Mariví Corres eta Jaime Ortiz de Urbina)
**PLAZAK:** 15
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



**Oinetakoak, jantziak, prismatikoak eta hamarretakoa eramatea garrantzitsua da.**

## Liken tailerra

**Apirilaren 25ean Larunbata**

**"Biologia eta egitura. Ezaugarri nagusien araberako sailkapena. Lupa, mikroskopioa eta erreaktiboen erabilera"**

Likeneen ezaugarri biologikoei eta morfologikoei buruz azalpen txiki batekin hasiko gara. Gero taldeka liken batzuk sailkatzen eta sailkatzeko erabiltzen diren ezaugarriak antzematen arituko gara.
Bukatzeko mikroskopioan esporak ikusteko prestaketa batzuk egingo ditugu.
Iraupena: 4 ordu.

**ANTOLATZAILEA:** Félix Garaikoetxea
**PLAZAK:** 12
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



# Maiatza

## HDXA-ren irteera: Fragako “El Vedado”

Maiatzaren **9an** eta **10ean** Larunbata eta igandea

**“Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 1. Irteera: Fragako “El Vedado”**

Asteburu honetako irteeran, Zaragoza eta Lerida artean dagoen Ebro Haraneko toki bitxi hau ezagutuko dugu. Udaberria izango denez, garai honetan han dauden landare bereziei argazkiak ateratzen saituko gara, adibidez: ***Dictamus hispanicus***, ***Erodium sanguis-christii***, ***Ferula loscosii***, ***Cytisus fontanesii***... eta abar.

*Argazkia: Cytisus fontanesii*

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik.



## Natura familian

Maiatzaren **16an** Larunbata

**“Natura familian: hau hemen zegoen lehen edo guk bota dugu?”**

Ibilaldi hau gure inguruan dugun natura behatzeko, horri buruz galdetzeko eta hausnarketak egiteko izango da. Animalien aztarnak bilatuko ditugu. Ukimenaz edota usaimenaz naturaren elementuak identifikatuko ditugu eta baita guk botatzen dugun zaborrari buruzko sentsibilizazio ekintzak ere egingo ditugu.
3-6 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiei zuzenduta dago.

**ANTOLATZAILEA:** Nerea Ruiz de Azúa
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



## HDXA-ren irteera: Laserna eta Vianako kaskailu-tokiak

Maiatzaren **17an** Igandea

**“Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 2. Irteera: Laserna (Araba) eta Vianako (Nafarroa) kaskailu-tokiak”**

Irteera honetan gaur egungo Ebro ibaiak Lasernan dituen kaskailu-tokiak eta Cicujano izeneko Viana inguruan dauden zintzilikaturiko kaskailu-tokiak bisitatuko ditugu. Leku harritsu eta hondartsu hauetan urteko landareak bizi dira; eta hain zuzen ere, horiek izango dira gure helburua. Besteak beste, oso arraroak diren ***Sedum rubens*** eta ***Helianthemum sanguineum*** izenekoak.

*Argazkia: Paronychia argentea*

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik.



Aurkibidea

# Maiatza

## Merindadesetara natur txangoa

**Maiatzaren 17an Igandea**

"Merindadesetara natur txangoa (Burgos)"

Arabako mendebaldean, Burgoseko lurraldean, oso gutxi ezagutzen den eskualdea dugu hau. Naturaren ikuspuntutik oso bitxia dena. Arabako haranen eta Kantauriko mendizerreen arteko lotura egiten du eta oso jende gutxi bizi denez, oso ondo mantendu izan da.
Txangoa kotxez egingo dugu eta helburu nagusia ornitologia izango da. Eguraldiaren arabera, Antuzanos edo Gayangoseko urmaelak bisitauko ditugu ur-hegaztiak ikusteko, oso toki aproposak baitira bertan kabiak egiten dituztelako. Hedillako hariztia eta Cornejoko basoa eta Hornillatorreko sakana ere bisitatuko ditugu. Lehenengoan baso-hegaztiak bizi dira eta bigarrenean harkaitz-hegaztiak.
Denbora baldin badugu, Lunadako mendatera igoko gara inguru alpino hau ikustera.

**ANTOLATZAILEA:** Nacho García
**PLAZAK:** 8
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



## Ornitologiari buruzko maratoitxikia

**Maiatzaren 23an Larunbata**

"Ornitologiari buruzko maratoitxikia"

Maratoia bada ere, konpetizio gabeko ekintza dugu hau. Gure helburua Lautadako ibilbide batean behatu dezakegun txori espezie kopuru haundiena jasotzea izango da. Ibilbide luze eta lau batean, Aberasturi herritik Salburuako urmaeletaraino joango gara. Inguru ezberdinetan (hariztiak, soroak, herriak, leku hezeak...) ikusten ditugun hegaztiak apuntatuko ditugu.
Modu honetan gure inguruko kabia egiten duten hegazti mota ezberdinak ezagutuko ditugu, prismatikoak erabiliz edo haien txioei erreparatuz.

*Argazkia: Kuliska zuria*

**ANTOLATZAILEA:** José Antonio Gainzarain
**PLAZAK:** 12
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



# Ekaina

## HDXA-ren irteera: Santo Domingoko mendizerra

**Ekainaren 6an eta 7an**
**Larunbata eta igandea**

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 3. Irteera:
Santo Domingoko mendizerra (Zaragoza)"

Asteburuko irteera aurrepirineoetako mendizerra interesgarri honetan ibiltzeko.
Espezie berezi batzuei argazkiak ateratzen saituko gara, haien artean: ***Erodium tordylioides***, ***Leucanthemum favergeri***, ***Odontites pyrenaeus***, ***Valeriana longiflora***, ***Sorbus latifolia***, ***Orchis olbiensis***... eta abar.

*Argazkia: Valeriana longiflora*

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik.



## "San Juan ukendua" egiteko tailerra

**Ekainaren 20an eta 21an**
**Larunbata eta igandea**

"San Juan ukendua" egiteko tailerra"

San Juan ukendua dena sendatzen duen etxeko ukendua da eta landare askorekin egina dago. Larunbatean, 20an, landareak jasoko ditugu Gasteizko inguruetan eta eguraldiaren arabera ordutegia aukeratuko dugu.
Igandean, 21ean, 10:00etatik-13:00etara, ANI-ren egoitzan ukendua egingo dugu.

**ANTOLATZAILEA:** Ángel García Soleto
**PLAZAK:** 12
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



# Uztaila

## HDXA-ren irteera: Beceiteko mendateak

Uztailaren **11an** eta **12an**
**Larunbata eta igandea**

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 4. Irteera: Beceiteko mendateak (Teruel-Castellón)"

Irteera honetan Castelloi eta Tarragona arteko toki berezi hau bisitatuko dugu. Hango flora eta bereziki ***Centaurea podospermifolia*** eta ***Centaurea x loscosii*** landareak ezagutzera goaz. Zurtoin gabeko Centaurea hauek ikertzen ari baikara.

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik.



*Argazkia: Centaurea argecillensis*

## Santa Catalinara txango likenologikoa

Uztailaren **18an** Larunbata

"Santa Catalinako monastegira txango likenologikoa (Araba)"

Santa Catalina inguruetan ibiliko gara. Giro desberdinetako likenak ikusteko aukera egongo da eta nahi izanez gero, lagin batzuk jasoko ditugu gero ANIn aztertzeko.

**ANTOLATZAILEA:** Félix Garaikoetxea
**PLAZAK:** 15
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



# Iraila

## Tailerra + Irteera onddoak I

**Irailaren 4an Ostirala (tailerra) eta 5ean Larunbata (irteera)**

**"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak I"**

Tailerrak eta irteerak eginez, onddoen mundu miragarrian murgilduko gara. Horrela ezagutuko dugu zer garrantzia duten inguru naturalean, nola garatzen diren, beraien eragina basoan eta zer-nolako erlazioa duten landarekin.
Klabe erraz batzuk erabiliz, onddoak identifikatuko ditugu baita ikutu eta usaindu ere. Ezaugarri guztiei erreparatuz espezie ezberdinak sailkatuko ditugu.
Jarduera honetn errespetuz jokatuko dugu eta ez dugu onddo gehiegi bilduko.
Anima zaitezte bidai zoragarri honetan gurekin etortzera.

**ANTOLATZAILEA:** Alfonso López de Armentia
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



*Argazkia: Boletus aereus*

## Izki: Natura eta Kultura II

**Irailaren 12an Larunbata**

**"Herriko natura eta kulturaren arteko erlazioa interpretatuko dugu"**

Izkirako bigarren irteera: Bizitoki ezberdinak, hegaztiak, fauna, eta natura eta herriko kulturaren arteko erlazioa. Kapilduiko bidean dauden Beolarrako gune interesgarri batzuk eta paramoak bisitatuko ditugu. Oso paisai irekia da eta larreak eta basoak tartekaturik ikusiko ditugu. Hango hegaztiak: larratxoriak, zapelatzak, saiak, aztoreak, gabiraiak, arrano sugejaleak... eta abar ikusteko aukera izango dugu.

**ANTOLATZAILEA:** Andoni Llosa
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



*Argazkia: Pirripioa*

# Iraila

## HDXA-ren irteera: Kuartangoko azkarrak

Irailaren **13an** Igandea

**"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 5. Irteera: Kuartangoko azkarrak"**

Azkarren mundua aztertzeko asmoz Kuartango-Uribarritik Tetxako sakanara hurbilduko gara.
Toki berezi honetan, ***Acer opalus***, ***A. monspessulanus*** eta ***A. campestris*** bizi dira. Hauen eta haien arteko hibridoen argazkiak aterako ditugu. Bidaia aprobetxatuz, Arkamo medizerratik paseotxo bat emango dugu.

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik.



*Argazkia: Acer monspessulanum*

## Tailerra + Irteera onddoak II

Irailaren **18an** Ostirala (tailerra) eta **19an** Larunbata (irteera)

**"Mikologiaren hastapena. Udazkenezko onddoak II"**

Tailerrak eta irteerak eginez, onddoen mundu miragarrian murgilduko gara. Horrela ezagutuko dugu zer garrantzia duten inguru naturalean, nola garatzen diren, beraien eragina basoan eta zer-nolako erlazioa duten landarekin.
Klabe erraz batzuk erabiliz, onddoak identifikatuko ditugu baita ikutu eta usaindu ere. Ezaugarri guztiei erreparatuz espezie ezberdinak sailkatuko ditugu.
Jarduera honetn errespetuz jokatuko dugu eta ez dugu onddo gehiegi bilduko.
Anima zaitezte bidai zoragarri honetan gurekin etortzera.

**ANTOLATZAILEA:** Alfonso López de Armentia
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



*Argazkia: Russula virescens*

# Iraila

## HDXA-ren irteera: Quercus-ak Quejon

Irailaren **27an** Igandea

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren 6. Irteera: Quercus-ak Quejon"

Irteera honetan "Los Arenales" izeneko Arzena mendizerraren toki silizeo bitxi honetara hurbilduko gara.
Han berezkoak diren ***Pinus pinaster*** aleak agertzen dira eta horien ondoan ***Quercus petrea***-ren basotxoak ikus daitezke. Azken hauei eta beraien hibridoei (***Q. petraea x pyrenaica*** y ***Q. petraea x faginea***) argazkiak aterako dizkiegu.

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** Belartegi digitalaren mintegian apuntaturik daudenetzat soilik.



*Argazkia: Quercus x rosacea*

# Urria

## Hegaztien eguna: "legar-hobien mundua"

Urriaren **3an** Larunbata

"Hegaztien eguna: "legar-hobien mundua"

Lur ekosistema gehienenetan , Europan behintzat, gizakiaren eragina nabaritzen da eta ez dira erabat naturalak.
Espezie asko era naturalean eraldatu dira denboran zehar. Baina gizakiak sortutako baldintzetara ere egokitu beharra izan dute. Adibide argi bat ibaien dinamikan aurki dezakegu: garai bateko ertzetako bizitokiak aldatu dira ibaien erregulazioarekin eta animaliak ordezko ekosistemak bilatu behar izan dituzte. Haien artean hualde-enara, limikolak, anfibioak....
Etxegintzetan erabiltzen diren agregakinak ateratzen direnean animalientzat ere bizitoki berriak sortzen dira eta hainbat espeziek aprobetzatzen dituzte. Animalien beharrak eta industriaren beharrak askotan ez datoz bat eta arazoak sortzen dira.
Epe luzean legar hobiek "tranpa ekologikoak" bihur daitezke.

**ANTOLATZAILEA:** José María Fernández García
**PLAZAK:** 15
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



# Urria

## Tailerra + Irteera onddoak III

Urriaren **9an** Ostirala (tailerra) eta
**10ean** Larunbata (irteera)

**"Mikologiaren hastapena.
Udazkenezko onddoak III"**

Tailerrak eta irteerak eginez, onddoen mundu miragarrian murgilduko gara. Horrela ezagutuko dugu zer garrantzia duten inguru naturalean, nola garatzen diren, beraien eragina basoan eta zer-nolako erlazioa duten landarekin.
Klabe erraz batzuk erabiliz, onddoak identifikatuko ditugu baita ikutu eta usaindu ere. Ezaugarri guztiei erreparatuz espezie ezberdinak sailkatuko ditugu.
Jarduera honetn errespetuz jokatuko dugu eta ez dugu onddo gehiegi bilduko.
Anima zaitezte bidai zoragarri honetan gurekin etortzera.

**ANTOLATZAILEA:** Alfonso López de Armentia
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



*Argazkia: Boletus edulis*

## Tailerra + Irteera onddoak IV

Urriaren **16an** Ostirala (tailerra) eta
**17an** Larunbata (irteera)

**"Mikologiaren hastapena.
Udazkenezko onddoak IV"**

Tailerrak eta irteerak eginez, onddoen mundu miragarrian murgilduko gara. Horrela ezagutuko dugu zer garrantzia duten inguru naturalean, nola garatzen diren, beraien eragina basoan eta zer-nolako erlazioa duten landarekin.
Klabe erraz batzuk erabiliz, onddoak identifikatuko ditugu baita ikutu eta usaindu ere. Ezaugarri guztiei erreparatuz espezie ezberdinak sailkatuko ditugu.
Jarduera honetn errespetuz jokatuko dugu eta ez dugu onddo gehiegi bilduko.
Anima zaitezte bidai zoragarri honetan gurekin etortzera.

**ANTOLATZAILEA:** Alfonso López de Armentia
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



*Argazkia: Amanita phalloides*

# Urria

## Habi-kutxak garbitu eta behatu

**Urriaren 24an Larunbata**

"Aretxabaletan habi-kutxak
garbitu eta behatu"

Ohi bezala, "La Dehesa"ko erkameztira hurbilduko gara, Iñaki Zorrakin irudigile eta bazkidearen oroimenez eta ohorez. Bertan txori intsektujaleek habia egitea errazteko asmoz zintzilikatutako habi-kutxak garbituko ditugu.

**ANTOLATZAILEA:** Antonio González
**PLAZAK:** aske
**MATRIKULA:** aske



# Azaroa

## Belartegi digitalaren ez ohizko irteera: Udazkenezko Narcissusak Marruekosen

**Azaroaren 1tik 10era**

"Xavier de Arizaga belartegi digitalaren ez ohizko irteera:
Udazkenezko Narcissusak Marruekosen"

Marruekoseko atlantiar kostaldetik Sidi Ifniraino iritsiko gara. Gure helburua hango udazkenezko **Narcissus**-ak behatzea, jasotzea eta argazkiak ateratzea zango da. Orain dela gutxi Espainako hegoaldean egin genuen kanpainaren jarraipena da. ***N. obsoletus/elegans*** ?, ***N. viridiflorus***, ***N. serotinus***, ***N. deficiens***, eta endemikoak diren ***N. broussonetti*** eta ***N. antiatlanticus*** ikusten saiatuko gara.
Bueltan Kadizeko ***N. viridiflorus*** eta ***N. x alleniae*** saiatuko gara aurkitzen.

*Argazkia: Narcissus obsoletus*

**ANTOLATZAILEA:** Pello Urrutia
**PLAZAK:** 4, lehentasuna HDXA-ren mintegian apuntarik daudenek.
**MATRIKULA:** gastuak denon artean.



## Tailerra + Irteera onddoak V

**Azaroaren 6an Ostirala (tailerra) eta**
**7an Larunbata (irteera)**

**"Mikologiaren hastapena.**
**Udazkenezko onddoak V"**

Tailerrak eta irteerak eginez, onddoen mundu miragarrian murgilduko gara. Horrela ezagutuko dugu zer garrantzia duten inguru naturalean, nola garatzen diren, beraien eragina basoan eta zer-nolako erlazioa duten landarekin.
Klabe erraz batzuk erabiliz, onddoak identifikatuko ditugu baita ikutu eta usaindu ere. Ezaugarri guztiei erreparatuz espezie ezberdinak sailkatuko ditugu.
Jarduera honetan errespetuz jokatuko dugu eta ez dugu onddo gehiegi bilduko.
Anima zaitezte bidai zoragarri honetan gurekin etortzera.

**ANTOLATZAILEA:** Alfonso López de Armentia
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



*Argazkia: Clavariadelphus pistillaris*

## Tailerra + Irteera onddoak VI

**Azaroaren 20an Ostirala (tailerra) eta**
**21ean Larunbata (irteera)**

**"Mikologiaren hastapena.**
**Udazkenezko onddoak VI"**

Tailerrak eta irteerak eginez, onddoen mundu miragarrian murgilduko gara. Horrela ezagutuko dugu zer garrantzia duten inguru naturalean, nola garatzen diren, beraien eragina basoan eta zer-nolako erlazioa duten landarekin.




*Mycena arcangeliana*
Ilustrazioa Antonio González Gómez

**ANTOLATZAILEA:** Alfonso López de Armentia
**PLAZAK:** 20
**MATRIKULA:** bazkideak 3 euro/ ez bazkideak: 6 euro



*Argazkia: Macrolepiota procera*

# Argibideak eta izen-ematea

Ekintza bati buruzko argibide zehatzak eskuratzeko eta izena emateko (gutxi gorabehera **hilabete bat** lehenagotik):

webgunean sartu (www.ian-ani.org) (ikus **Hurrengo ekintzak** hasiera-orrian edo Ekintzak atala; izena emateko orria ekintza bakoitzaren deskribapenaren bukaeran dago): lehenesten dugun bidea, 945 246606 telefonora deitu edo gure egoitzara jo (UNED eraikina, Pedro Asua, 2-3.a; bisitarientzako ordutegia: ostiraleko 19:00etatik 20:30etara, jai-egunetan, -zubietan eta -bezperetan izan ezik).

Egitarauaren edukiak eta datak aldatu ahal izango dira; edozein modutan ere, aldaketok webgunean garaiz jakinaraziko dira. Ekintzak oro har gaztelaniaz burutuko dira. Guri idazteko, erabil ezazu webgunearen Harremana atalean dagoen datu-orria.

*Arren, behar beharrezkoa ez bada, ez nazazu inprimatu.*

Instituto Alavés de la Naturaleza
ian ani
Arabako Natur Institutua